

## PROIEKTUAREN AZALPENA:

Gure proiektua laburki esanda, modari zuzendutako aplikazio bat izango da.

Aplikazio honek konbinazio desberdinak sortuko ditu armairuan duten jantzi desberdinekin.

Honi esker, bezeroei posible izango zaie dirua eta denbora aurrezte.

Horretaz aparte, aplikazioa bezero mota guztientzat zuzenduta egon arren, modan adituagoak direnentzat bideratuagoa dago batez ere.

Gure bezeroen artean, bi mota desberdinduko ditu, alde batetik premium bezeroak eta bestetik bezero arruntak.

Aplikazioak laguntzaile birtual bat izango du, behar ditugun gauzak konpontzeko prest egongo dena ordutegi zehaztu baten barruan.

# 1. IDEIA:

Gure ideia, modan oinarritutako aplikazio bat egitea da. Gure aplikazioa, Play Storen eta App Storen eskuragarri egongo litzateke. Bertan, gure armairuan daukagun arropa guztiari argazki bat atera ahalko genioke eta automatikoki aplikaziora igoko litzateke. Behin igota, eguraldiaren arabera, egun horretan egin beharreko ekintzaren arabera... arroparen konbinazioak egingo lituzke. Ondorioz, denbora asko aurreztuko genuke.

Hontaz aparte, garbitzaile makinan dagoen arropa kontutan hartuko luke eta gutxi janzten dugun arropa ere. Azkenik, erabilera gutxi daukan arropa saltzeko aukera emango liguke, norberaren armairuan leku gehiago sortzeko helburuarekin.

